

MUNICH-KO GERTAERA

Ez da erraza nazioarteko beste gertaera batez idaztea, hemezortzi hilen gorputzak oraindik hortzeke daudelarik. Ez da, haatik, are errazago Munich-en gertatu den hilketaz zerbaiz zuzenik idaztea.

Halere isilik egotea ezinezkoa delarik, zilegi bekit zenbait gogoeta, gertaera triste honetaz, hemen azaltzea.


Harritzekoa da gertatu dena, hain zuzen, harri-garria ez zelako gertakizuna. Barka paradoja eta hona ene gogoeta. "Irail beltz" deritzan taldeak barreiatsu du mezu bat, aitortuz berek egin dutela Munich-ko ekintza. Olinpiadako joku-zelaian han altxatzen da, munduko erresuma gehienekin batera, Israel erresumaren ikurrina. Ikurrin hau laidogarri da Palestinako arabe abertzalenetzat. Mundu guztiaren aurrean, mundu guziko begien aurrean, han agertuko ziren israeldar atletak, behar bada han agertuko zen "ikurrin maradikatua", izanik behar ez lukeen Estatu gorrotatuaren ikurrina, munduko beste Estatu ofizialen ikurrinekin batera eta parean. Agian, erresuma horren Eresia bera ere altxatuko zen Munich-ko joku-zelaian, eta haren doñua entzutean ez Munich-en bakarrik, baizik baita munduko bazter guztietan ere halako errespeto batez entzun egingo zen Israel-Estaduaren sinboloa eta, bidenabar, erresuma honi eman egingo zitzaion munduaren omena eta errespetoa. Garaipen hori, Israel-entzat, kirol garaipena ez ezik, politikazko garaipen eta irabazpen baliotsua ere izango zen.

"Irail beltz" taldeak, bere agerian dioenez, laido hori eta bidegabekeria hori ez zezakeen inolaz ere jasan. Olinpiadako "pake giro eta analetasuneko festan", Palestinako askatasun gerratea ahanztu arazi nahi dute; Munich-en israeldarrak sariz ornitzen diren bizkitartean, han daude presondegietan zokoratuak eta atortmentatuak "Irail beltzeko" anaiak eta gudariak. Laido hori eraman eta jasan ezinezkoa zelako, eman dute —"Irail beltzaren" ageriak dioenez—, Munich-ko kolpea. Oreago, Israelen Munich-ko agerpena, laido eta bidegabekeria munduko herri guztientzat omen da. Izan ere, "Israel-Estadua Usaren zerbitzari eta inperialismoaren morroi eraile baino" ez omen da, eta hau, Israel-Estaduaren izatea, alegia, ez omen dute inolaz ere ametituko ez jasango, munduko herri pakezaleek. Olinpiadako "pake giro analetasunekoak" hain zuzen, lozorroan ezarri nahi ukan ditu munduko pakezale egiazkoak eta inperialismoaren joku maltzur hori deuseztatzeko, "Irail beltz" indar-taldeak eman egin behar izan du, Munich-en eman duen Kolpe ikaragarria.

Hona hemen "Irail beltzak" barreiatsu duen mezua. Egia esan ez gara batere sutan jarri ageri hau irakurtzean. Ez dakit, izan ere, tutik balio ote duen gaurregun haserretzeak eta sutan jartzeak. Ez zaigu harri-garri gertatu, palestinar abertzaleek Munich-en egin dutena. Kontuan eduki behar da, gaurregun palestinar abertzaleek gudua Israeli "kanpotik" bakarrik egin dizaioketeela. Jordaniak eta Egiptok beren lurretatik aienatu dituzenez geroz, Sirian eta Libanon bildu dira palestinar abertzaleok. Erresuma lagun hauetan bide dauzkate beren baseak. Baina, base horietatik ezin dute gudurik Israel barrena eraman. Ezinbestean, beraz, "izuketa bidea" hartu dute gudu-molde soiltzat Palestina Askatuaren gudariak.

"Desperados" batzuen jokabidea omen da "Irail beltzaren" bortxabide hau. Gezurra badirudi ere, guretzat bakarrik, hots —kanpotik begiratzen diegunentzat—, agertzen zaizkigu "gogogaldu" baita. Hau da, kanpotik begiratu, indarrak objektiboki neurtuz, argi eta garbi ageri da palestinar abertzaleen ahuleria eta bakardadea. Horrela, egoera honetan bortxabidea edo izuketa bidea aukeratzea galbidea iruditzen zaigu eta palestinar arabe herriarentzat eta honen askatasunarentzat.

Baina, ez dugu beste aldea ahanztu behar. Pales-



tinar gudariok (har kontuan gorago aipatu dugun "Irail Beltz" aren agerria) ez dira Palestina Askatuaren alde ari soilik. Ez. Israel-en aurka ari dira eta, honen bitartez, USA-Inperialismoaren aurka munduko parte honetan, hots, Mediterraneoko bazter horretan. Ideologia honek, alde subjektibo honek, kentzen die "Irail Beltzekoei" nahiz beste munduko "izuketalarik" guziei "desperados" batzuen kontzientzia. Gaurregun kondizioetan, abertzale horien bortxazko gudaketa lehen mailan inperialismoaren aurkako borroka unibersala bilakatzen da; eta bigarren mailan, luzarora eta borroka partikular bezala gelditzen da abertzaletasun eta askatasun borroka eta gudua.

Hona, beraz, zergatik ez zen batere harritzekoa guretzat Munich-eko gertakizuna. Esan nahi da, gertatu dena gerta zitekeela, gertatu dena gertatzeko baldintzapenak eta kondizioak han bertan, Munich-en zeudela; hau egia esan, gauza txit garbia da guretzat.

Halaz ere harritu egiten gora gertatu denaz. Izan ere, ez dugu ulertzen Alemaniako Gobernuaren zuhertasuna non den. Gezurra dirudi Erresuma horrek daduzkan eskutartekoekin, Olinpiako Uria hobeki zaindua ez gordetzea. Misterioz betea agertzen zaigu bestalde aldeportuko hilketak tristeak. Zer esan gehiago, alfer-hitza litzakeelarik? Arazo nahasi hauetan, isiltzea iaten da bidezkoena, albiste zehatz eta zihurrik ez dagoenean.

"Bortxa eta indarkeria gizarteko har-emanetan sendo baino sendoago erroturik ditugunez gero..." dio Mitxelenak bere "Azken ordukoak"ean. Bai, bortxabidea eta izuketa zabaltzen joango diren beldur naiz, mundu guzian. Bidegabekeriak, zapalketak, gorrotoak mundu guzian aurkiten dira barreiatsuak. Mila borroka bada munduan, epe laburrera irtenbide zuzenik eta osorik agertzen ez duenik. Gaur, ordea, haui eta borroka partikular hoieri, batasuna eta unibersaltasuna zerak borroka ideologikoak eman nahi die eta eman die. Unibersaltasun honek eusten die sendo, gogogaldu dirudian borroka askori. Bortxa eta indarkeria zabaltzen joango da. Bestalde, Estaduek eta Gobernuak ez dute ahanztuko ez Willy Brandt-en hutsa. Polizia sareak gero eta hertsiago hedatuko dira Europa guian. Badirudi, "izupeko orekaldian" bizi beharko dugula, ez dakit noizarte. Eta guk, bortxabideetatik landa gabiltzanok nolaz bizi behar ote dugu, nolaz asmatu behar ote dugu gure "eguneroko lanbidea" aurrera eramaten?

GURUTZ ANSOLA